**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2018ko AZAROAK 6 / 6 - NOVIEMBRE - 2018**

**TOKIA / LUGAR:** SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 06/11/2018

**HASIERA / INICIO:** 17:00 horas

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
2. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
3. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
4. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
5. Alkateordea, Don Humberto Jaio Sagasti jauna
6. Alkateordea, Don Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna
Doña Olaia Albizu Gallastegi andrea
Don Harri Guridi Ordeñana jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EH BILDU)**
Don Daniel Maeztu Perez jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna
Doña Maria Soledad Juaristi Alberdi andrea

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)**
Don Julian Rios Santiago jauna
Don Jorge Varela Dorrio jauna
Don Francisco Javier Lopez Lakunza jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE))**
1. Alkateordea, Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Mauricio Garcia Martin jauna

**ZINEGOTZIA / CONCEJAL (PP)**
Don Francisco Garate Mintegui jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

**IZAERA / NATURALEZA:** OHIKOA / ORDINARIA
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** LEHENA / PRIMERA

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTEN ZIRRIBORROAK IRAKURTZEA ETA ONARTZEA: 2018KO MARTXOAREN 20KO ETA 2018KO APIRILAREN 24KO OHIKOAK.**

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LOS BORRADORES DE LAS ACTAS DE LA SESIONES ORDINARIAS DE 20 DE MARZO Y 24 DE ABRIL, AMBAS DE 2018.**

IRAKURRI OSTEAN, aurreko batzarreko akta-zirriborroak, 2018ko martxoaren 20ko eta 2018ko apirilaren 24ko ohikoak hain zuzen ere.

DADA LECTURA a los borradores de las Actas de las sesiones anteriores, correspondientes a las Ordinarias de 20 de Marzo y 24 de Abril, ambas de 2018.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2018ko martxoaren 20ko** eta, gehiengoaren botoarekin (EAJ/PNV) Oceja Sobron jauna abstentzioarekin bilera bere lagundu gabe uztea emanda, **ONARTU EGITEN DU 2018ko apirilaren 24ko** Osoko Bilkuraren ohiko akta.

PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** el Acta del Pleno Ordinario de **20 de Marzo de 2018**, y por mayoría, con la abstención del Concejal Sr. Oceja Sobrón (EAJ/PNV), dada su inasistencia a la misma, **APRUEBA** el Acta del Pleno Ordinario de **24 de Abril de 2018**.

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

✓ **2018KO AURREKONTUAREN KITAPENA (1GO. SEIHILEKOA).**

✓ **LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO 2018 (1ER SEMESTRE).**

* Kontu-hartzaile ordea <u>**Velasco Perez andreak**</u>: Diru-sarreren exekuzio maila 2018ko ekainaren 30ean %64,24koa izan da; portzentaje horren %76,50a ohiko diru-sarrerei dagokie eta %2,43a kapitaleko diru-sarrerei. Gastuari dagokionez, exekuzio maila %46,58koa izan da; honetatik ohiko gastua %53,73a izan da eta kapitalekoa %9,35a. Urtea aurrera doan neurrian ikusiko dugu aldatuz joango dela diru-sarreren eta gastuen exekuzio maila.

* Interventora en funciones <u>**Sra. Velasco Perez**</u>: El nivel de ejecución de los ingresos a fecha de 30 de junio de 2018 ha sido del 64,24 %. De ese porcentaje, 76,50 % corresponde a ingresos ordinarios y el 2,43 % a los ingresos de capital. En cuanto a los gastos, el nivel de ejecución ha sido de un 46,58 %, del cual un 53,73 % corresponde a gasto ordinario y un 9,35 %, a gasto de capital. Veremos en la medida que avance el año que el nivel de ejecución de los ingresos y gastos irá cambiando.

✓ **BESTEAK.**

✓ **OTROS.**

* Alkatesa <u>**Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**</u>: Aurreko astean komunikabideetan eztabaida txiki bat sortu zen MTVren kontzertuaren kostua dela

* Alcaldesa <u>**Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**</u>: La semana pasada, surgió un pequeño debate en los medios sobre el coste del concierto de MTV y

eta ez dela, eta komenigarria da jakitea zenbatekoa izan den kostu hori. Durangoko Udalak 2.969 euro zerbitzuan, industria buletinaren kontratazioan, kontsumo elektrikoan eta hainbat gastu teknikoetan.

Beste datu bat ere eman behar dut; zapatu honetan beste ekitaldi berri bat egingo da eta horren kostuaren berri ere eman nahi dut. Larunbatean Kurutziaga Ikastolaren 50. urteurrena ospatzeko jaialdi eta bazkaria egingo da LESAN eta udalak bere gain hartuko du kostu hori, hain zuzen ere, 2.457 eurokoa, eta kontzeptuak antzerakoak dira.

Gainerako kontu guztiei buruzko informazioa ikusgai dago Idazkaritza Nagusian.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

conviene saber la cuantía de ese coste. El Ayuntamiento de Durango ha gastado 2.969 euros en la organización de dicho concierto, en el servicio de guardia, en la contratación del boletín industrial, en el consumo eléctrico y en varios gastos técnicos.

Quisiera añadir otro dato, y es que el sábado se celebrará otro evento, del cuyo coste os quiero informar. El sábado se efectuará en LESA un festival y una comida para festejar el 50 aniversario de Kurutziaga ikastola y el Ayuntamiento asumirá ese coste, precisamente de 2.456 euros, y los conceptos son similares.

La información sobre el resto de las cuestas está disponible en Secretaría General.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**HIRU.- BIDEZKOA BALITZ, 2016KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA. (KONTU BATZORDE BEREZIAREN IRIZPENAREN DUENA 2018KO URRIAREN 17KOA).**

Kontu Batzorde Bereziaren irizpena duena 2018ko Urriaren 17koa, eta honako hau dioena:

"*2017ko uztailaren 11ko Kontu Batzorde Bereziak 2016ko Kontu Orokorraren alde informatu zuen.*

*Jendaurreko hamabost lanegunetako epean (2018ko uztailaren 17ko BEO) ez da ez ohar ez erreklamaziorik aurkeztu.*

*Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen AurreKontuei Buruzko Abenduaren 2ko 2003/10. Foru-Arauaren 63.4 Artikuluaren arabera*

*(...)*

*Batzorde bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta ingerekin batera, Kontu Orokorra udalba-tzaren onespenerako jarriko da, eta bidezkoa bada uztai-laren 31 baino lehen onetsiko da.*

**TRES.- APROBACIÓN DEFINITIVA, SI PROCEDE, DE LA CUENTA GENERAL DEL EJERCICIO 2016. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS DE 17 DE OCTUBRE DE 2018).**

Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Especial de Cuentas, en sesión de 17 de Octubre de 2018, del tenor literal siguiente:

"*La Comisión Especial de Cuentas, en sesión de fecha 4 de julio de 2018, informó favorablemente la Cuenta General del ejercicio 2016.*

*Durante el período de quince días hábiles de información pública (BOB de 17 de julio de 2018) no se ha presentado reclamación ni observación alguna.*

*De acuerdo con lo establecido en el artículo 63.4 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales,*

*(...)*

*Acompañada de los informes de la Comisión Especial y de las reclamaciones y reparos formulados, la Cuenta General se someterá al Pleno de la Corporación para que, en su caso, pueda ser aprobada antes del 31 de julio.*

***IRIZPENA***

*EAJ/PNV (2) eta PSE-EE (PSOE) (1) udal taldeen ordezkarien aldeko botoarekin eta EH Bildu (2) SQ-2D (1) eta PP (1) udala taldeen abstentziaz honako proposamen hau luzatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari*

***AKORDIOA:***

*LEHENA.- 2016ko Kontu Orokorra onartzea.*

*BIGARRENA.- Behar bezala onetsitako Kontu Orokorra Herri Kontuen Euskal Epaitegiari bialtzea.*"

***DICTAMEN***

*Con el voto favorable de los representantes de EAJ/PNV (2) y PSE-EE (PSOE) (1) y la abstención de los representantes de EH Bildu (2), SQ-2D (1) y PP (1) se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente*

***ACUERDO:***

*PRIMERO.- Aprobar la Cuenta General del ejercicio 2016.*

*SEGUNDO.- Remitir al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la Cuenta General debidamente aprobada."*

* Kontu-hartzaile ordea **Velasco Perez andreak**: Kontu orokorrean ekonomiaren, finantzen, ondarearen eta aurrekontuaren arloetan egindako kudeaketen berri agertu behar da; bai erakundearena berarena, bai erakunde autonomoena eta baita haien menpeko sozietate publikoena ere.

Kasu honetan, 2016ko abenduaren 31 harturik erreferentzia data moduan. Bizkaiko Foru Aldundiaren 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, Bizkaiko Toki Entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena, 2016ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean; horregatik, 2016ko ekitaldiko urteko kontuetan jaso beharreko informazioa dekretu horren arabera bete dugu.

2018ko uztailaren 4an, batzordean, 2016ko kontu orokorraren berri eman zen eta batzordeak irizpena eman zuen. Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Udalbatzen aurrekontuen Foru Arauak ezartzen duen bezala, 2018ko uztailaren 17an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta jendaurrean erakutsi zen hurrengo 15 egunetan.

Ez zen erreklamaziorik aurkeztu; gero, aurtengo urriaren 17an berriz aurkeztu zen batzordean eta, batzordeak osoko bilkurara ekartzen den irizpena eman zuen bere onespenerako, bidezkoa balitz.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* Interventora en funciones **Sra. Velasco Perez**: En la cuenta general se debe dar cuenta de la gestión llevada a cabo en economía, finanzas, patrimonio y presupuesto; tanto de la institución, como de los organismos autónomos y las sociedades públicas subordinadas a dichos organismos.

En este caso, se toma como fecha de referencia el 31 de diciembre del 2016. El Decreto Foral 139/2015, del 28 de julio, de la Diputación Foral de Bizkaia, que establece el marco normativo de la contabilidad de las Entidades Locales de Bizkaia, entró en vigor el 1 de enero del 2016; por ello, hemos rellenado la información que se debe recoger en las cuentas anuales del ejercicio de 2016 de acuerdo con dicho decreto.

El 4 de julio del 2018, se informó en Comisión, sobre la cuenta general del 2016 y la Comisión emitió su dictamen. Tal y como establece la Norma Foral de los presupuestos de las Corporaciones Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, el 17 de julio del 2018 se publicó en el Boletín Oficial de Bizkaia y se sometió a exposición pública durante los siguientes 15 días.

No se presentaron reclamaciones. El 17 de octubre de este año, se volvió a presentar las cuentas generales en Comisión, la cual emitió el dictamen, que se traslada a Pleno, para su aprobación, si procede.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Beste batzuetan ere aipatu izan dugu, gure ustez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ezarritako irizpideak bete gabe jarraitzen dugu.

* **Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)**: 2017ko kontu orokorraz aritu behar genuke hizketan eta ez 2016koaz. Egia da, baita ere, 2017ko likidaziorik gabe gaudela eta aurtengo martxoan aurkeztu behar zela. Iaz, kolpetik ekarri zenizkiguten 2013ko, 2014ko eta 2015eko kontu orokorrak. Zaila da Udal honen eta gobernu-talde honen kudeaketa ekonomikoa fiskalizatzea, oposizioko kideoi zaildu egiten baitiguzue lan hori egitea; izan ere, aipatutako txostenak ez ditugu erabilgarri, ez baitira garaiz eta forma egokian aurkeztu eta urtetako atzerapenarekin aurkeztu baitira. Kontu orokor honen aurkako botoa ematea justifikatzen duten alderdi batzuk aipatutako ditut orain:

Zenbait kontu orokorretan ikusi ditugun askotariko irregulartasun eta arau-hausteen artean, 2016ko kontuei dagokienez, batzuk errepikatu egiten dira; adibidez, hauek:

- ✓ 10/2003 Foru Arauaren arabera egina ez dagoena zalantzazko kobrantzaren kalkulua; aitortutako eskubide gisa kontabilizatutako maileguak, erabili gabeak, eta hala, ez dira betetzen mailegu horiek aitortzeko indarrean den kontabilitateko instrukzioak ezartzen dituen baldintzak. Hori ohartarazi du Kontuen Epaitegiak 2009an eta 2015ean igorritako txostenetan.
- ✓ Horrez gain, ez dago kontrolik kreditu-soberakinak txertatzearen inguruan; horixe bera zehazten eta horretaz ohartarazten du Euskal Kontuen Epaitegiak, lehen aipatu ditugun txosten horietan. 2015en gaizki sartutako 5 milioi aipatu zituzten.
- ✓ Bestalde, Udal honek Bizkaiko Foru Aldundiaren Azpiegitura enpresa publikoarekin duen zorra ere aipatu beharrekoa da. Bi urteko gabealdia eta Alkatetzaren akordio baten ondoren sinatutako zorraren birfinantzaketaren ondoren, Udalak ordaintzen jarraitzen duen zor horrek 2012an behar zuen kitatuta. Bi ur-

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Como hemos comentado otras veces, creemos que se sigue sin cumplir los criterios que trasladó el Tribunal Vasco de Cuentas.

* Concejal **Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu)**: Deberíamos de estar hablando de la cuenta general de 2017 y no de la de 2016. También es cierto que estamos sin la liquidación de 2017 que se tendría que haber presentado en marzo de este año. El año pasado ya nos trajisteis de golpe y porrazo las cuentas generales de 2013, 2014 y 2015. Se hace difícil fiscalizar la gestión económica de este Ayuntamiento y de este Equipo de Gobierno donde a la oposición se nos dificulta esta labor, ya que no disponemos de los informes que hemos comentado, ya que no se presentan en tiempo y forma y se presentan con años de retraso.

Pasaremos a enunciar algunos de los aspectos por los cuales justificaremos los votos en contra a esta cuenta general:

- ✓ Entre las diversas irregularidades e incumplimientos que hemos detectado en las diferentes cuentas generales, en lo que corresponde a la de 2016, se repiten algunas como la del cálculo del dudoso cobro que no es acorde a la Norma Foral 10/2003; la existencia de préstamos contabilizados como derechos reconocidos sin que ninguno de ellos se esté dispuesto y no se cumpla así las condiciones de la instrucción de contabilidad vigente para el reconocimiento de dichos préstamos. Así lo advierte el Tribunal de Cuentas en los diferentes informes que ha hecho tanto en 2009 como en 2015.
- ✓ Tampoco existe control sobre la incorporabilidad de los remanentes de crédito; esto mismo lo especifica y advierte en Tribunal de Cuentas del País Vasco en sus diferentes informes ya mencionados. En el 2015 hace una puntualización de 5 millones mal incorporados.
- ✓ Por otro lado, hay que comentar la deuda que tiene este Ayuntamiento con Azpiegitura, que es una empresa pública de la Diputación Foral de Bizkaia. Tras dos años de carencia más una refinanciación de la deuda firmada tras un acuerdo de alcaldía -que ya nos gustaría saber si ésta es competente o no ya que no se dio ni cuenta ni nada en el pleno-, pues bien, esta

teko gabealdia eta aipatu dugun birfinantzaketa berria direla-eta, 2019an kitatuko dugu zorra, hark sortutako interes eta guzti. Bide batez, gustatuko litzaiguke jakitea ea Alkatetzak horretarako eskumenik duen edo ez, Osoko Bilkuran ez baitzen ezer aipatu.

- ✓ Pabilioia 7,5 milioi kostatu zitzaigun, Azpiegiturarekin 5.600.000 euroko mailegua sinatu genuen eta gaur egun, 800.000 euro inguru ari gara interesetan ordaintzen. Era berean, pabilioia kudeatzen duen LESA enpresak deseginda egon behar zuen 2015eko abenduaren 31n eta likidazio-urte hauetan guztietan zenbateko arrunta ordaindu dugu, ohiko funtzionamendua, funtzionamendu arrunta balitz bezala.

- ✓ Gainera, araudia urratu da, ez dago erakunde autonomoen eta enpresa publikoen finantza-kontrolik eta nahitaezkoa da kontrol hori. Ez dute aitzakia gisa balio kontratatzen diren kanpoko enpresen ikuskaritza-txostenek.

Azaldutako guztiagatik, aurkako botoa emango dugu.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Guk konfiantza osoa daukagu gaur kontuhartzaile andreak emandako azalpenengan eta egiten dituen informeetan daukagun konfiantza ere agerian utzi nahi dugu eta eskerrak ematen dizkiogu bai lanagatik eta bai gaur eman dizkigun azalpenengatik.

* **Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)**: Eusko Alderdi Jeltzaleko Bozeramaileak argudiatu duenari erantzunez, esan nahi dut kontua ez dela konfiantza izatea edo ez izatea; gu ez gaude mesfidati alderdi teknikoarekin, adierazi duguna da ez garela araudia betetzen ari eta behin baino gehiagotan esan dugu hori. Araudia bete beharrekoa da.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Nire hitzak berretsi gura ditut, eta agerian jarri daukagun konfiantza, gauzak egiten direnean ondo egiten direlako, legearen esparruaren barruan betiere.

deuda que el Ayuntamiento sigue pagando tenía que estar amortizada en el 2012, y tras los dos años de carencia más la nueva refinanciación que hemos comentado, la acabaremos pagando en 2019 con los correspondientes intereses que esto supone.

- ✓ El pabellón nos costó 7,5 millones, contrajimos un préstamo con Azpiegitura de 5.600.000 euros y a fecha de hoy estamos pagando alrededor de 800.000 euros en intereses. Así mismo, LESA, que es la empresa pública que gestiona el pabellón, debería de estar disuelta a 31 de diciembre de 2015 y todos estos años de liquidación se ha ido aportando la cantidad ordinaria como si de un funcionamiento ordinario se tratase.

- ✓ Al mismo tiempo, se incumple la normativa, no existe control financiero ni de los organismos autónomos ni las empresas públicas, cuestión que es obligatoria y no sirven como excusa los informes de auditorías de las empresas externas que se contratan.

Por todo lo que hemos mencionado votaremos en contra.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nosotros confiamos plenamente en las explicaciones proporcionadas hoy por la interventora y también queremos resaltar nuestra confianza en los informes que elabora. Agradecemos su trabajo y las explicaciones que nos ha proporcionado hoy.

* Concejal **Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu)**: En contestación a lo que argumenta la Portavoz del Partido Nacionalista Vasco, no se trata de confianza o no confianza; nosotros no desconfiamos de la parte técnica, lo que estamos manifestando es que no se está cumpliendo la normativa y lo hemos manifestado en reiteradas ocasiones y la normativa está ahí para cumplirse.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Quisiera corroborar mis palabras, y resaltar nuestra confianza, porque cuando se hacen las cosas, se hacen bien, siempre dentro del marco legal.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAIKA, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.
- Kontrako botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Beraz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, hauxe erabaki du:

**LEHENA**.- 2016ko Kontu Orokorra onartzea.

**BIGARRENA**.- Behar bezala onetsitako Kontu Orokorra Herri Kontuen Euskal Epaitegiari bialtzea.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: ONCE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.
- Votos en contra: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.
- Abstenciones: NINGUNA.

Por lo tanto,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, acuerda:

**PRIMERO**.- Aprobar la Cuenta General del ejercicio 2016.

**SEGUNDO**.- Remitir al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la Cuenta General debidamente aprobada.

**LAU.- ALEGAZIOAREN ERABAKIA ETA, BIDEZKOA BALITZ, DURANGOKO UDALEKO UDALTZAINGOAREN ARAUDIA BEHIN BEHINEKO ONARTZEA. (OGASUN, PERTSONALA ETA UDALTZAINGOAREN BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA, 2018KO URRIAREN 17KOA).**

Ogasun, Pertsonala eta Udaltzaingoaren Batzordearen irizpena duena 2018ko Urriaren 17koa, eta honako hau dioena:

"*Durangoko Udaltzaingoaren Erreglamenduaren hasierako onarpena dela eta, ELAk iradokizuna aurkeztu zuen 2018ko abuztuaren 14an (Erregistro sarrera: 2018006389), eta abuztuaren 17an alegazio-idatzia aurkeztu zuen iradokizuna zuzentzeko (Erregistro sarrera: 2018006434).*

**CUATRO.- RESOLUCIÓN DE LA ALEGACIÓN Y PROPUESTA DE APROBACIÓN DEFINITIVA DEL REGLAMENTO DEL CUERPO DE LA POLICÍA LOCAL DE DURANGO. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 17 DE OCTUBRE DE 2018).**

Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal, en sesión de 17 de Octubre de 2018, del tenor literal siguiente:

"*En relación al escrito de alegación de fecha 17 de agosto de 2018 con número de registro de entrada 2018006434 que rectifica la sugerencia de 14 de agosto de 2018 (RE 2018006389) interpuesto por ELA a la aprobación inicial del Reglamento del Cuerpo de la Policía Local de Durango.*

*Giza Baliabideetako arduradunak idatzia aztertu eta gero txostena igorri du 2018ko irailaren 4an. Hauxe dio, hitzez hitz:*

*AURREKARIAK*

*(...)*

*2.- Alegazioaren edukia*

*(...) Arrazoi horregatik, 2018ko abuztuaren 14an idatzi bat aurkeztu zen sarrera erregistroko 2018006389 zenbakiarekin, "erreklamazio-iradokizun" bat egiteko 21.artikuluari (V.tituluan).*

*Aurreko paragrafoan aipatutako idatzian egon litekeen forma-akats baten aurrean, beste alegazio hau aurkezten dugu Durangoko Udaltzaingoaren Antolamenduaren eta Funtzionamenduaren Erreglamenduko 21.artikuluari, V.titulua. Hauxe diogu idatzi horretan:*

*"Arauzko uniformea jantzi beharko dute, alkatetzak, edo bestela, zerbitzuburuak horrela zehazten duen kasuetan, betekizunaren arabera, urgentziaren, ikerketa motaren, garatu beharreko ekintza edo funtzioen arabera. Agindua eman eta gero, zerbitzuburuak alkateari horren berri emango dio."*

***EBAZPEN PROPOSAMENA***

*Lehenengoa.- ELAk aurkeztutako alegazioa onartzea, eta moldatzea Durangoko Udaltzaingoaren Erreglamenduko 21.artikulua. Honela geldituko litzateke:*

> *Uniformetasunari dagokionez (arropak, identifikazioa eta plakak, ikurrak eta ezaugarriak, bereizgarriak eta ekipoa), indarrean dagoen araudian ezarritakoa aplikatuko da, hau da, Herrizaingo, Justizia eta Administrazio Publikoko sailburuordearen 2012ko irailaren 24ko Aginduan ezarritakoa edo berori ordezkatzen duen araudia. Aipatu Aginduan "Udaltzaingoen uniformetasunaren eta kanpoaldeko zeinu bereizgarrien eskuliburua" argitaratu zen.*
>
> *- Uniformeari eta ekipoari buruzko arau orokorra. Udaltzaingoko kideek arauzko uniformea jantzi beharko dute euren funtzioak betetzerakoan. Bi salbuespen egongo dira: alkateak kontrakoa erabakitzea, betekizunaren*

*Visto el informe emitido por la Responsable de Recursos Humanos en fecha 4 de septiembre de 2018 cuyo tenor literal es:*

*ANTECEDENTES*

*(...)*

*2.- Contenido de la alegación*

*(...) Con tal motivo, en fecha 14 de agosto de 2018, se presentó un escrito con número de registro 2018006389, realizando una "reclamación-sugerencia" al artículo 21, título V.*

*Ante la posibilidad de un error de forma en el escrito mencionado en el párrafo anterior, presentamos esta nueva alegación al Reglamento de Organización y Funcionamiento del Cuerpo de la Policía Local de Durango, en su artículo 21, Título V, quedando redactada de la siguiente manera:*

*"Deberán vestir el uniforme reglamentario, salvo en los casos a determinar por la Alcaldía en atención al cometido que se desarrolle, o en su defecto, por el Jefe de Servicio, cuando así lo determine la urgencia, tipo de investigación, operativo o funciones a desarrollar, dando cuenta de la misma posteriormente a Alcaldía*

***PROPUESTA DE RESOLUCION***

*Primero.- Aceptar la alegación presentada por ELA y modificar el artículo 21 del Reglamento del Cuerpo de la Policía Local de Durango en el siguiente sentido:*

> *En lo referente a la uniformidad (vestuario, identificación y placas, emblemas y divisas, distintivos, equipo y armamento) será de aplicación lo establecido en la normativa vigente, por la Orden de 24 de septiembre de 2012, de la Consejera de Interior, Justicia y Administración Pública, por la que se publica el "Manual de uniformidad y signos distintivos externos de las Policías Locales" o normativa que lo sustituya.*
>
> *- Norma general sobre uniformidad y equipo. Los miembros de la Policía Local en el ejercicio y cumplimiento de sus funciones deberán vestir el uniforme reglamentario, salvo en los casos a determinar por la Alcaldía en atención al*

*arabera; eta zerbitzuburuak hala agintzea, urgentziaren, eskuartze motaren, edo garatu beharreko ekintza edo funtzioen arabera. Agindua eman eta gero, zerbitzuburuak alkateari horren berri emango dio.*

*Ez dira onartuko araudi honetan ezarritakora egokitzen ez den ekipo, jantzi edo osagarririk.*

***IRIZPENA***

*Gauzak horrela, EAJ/PNV (2), PSE-EE (PSOE) (1) eta PPko (1) ordezkarien aldeko botoekin eta EH Bildu (1) eta SQ-2Dko (1) ordezkarien abstenzioarekin, osoko bilkurara eroango da ondoko*

***ERABAKIA***

***Lehenengoa**.- ELAk aurkeztutako alegazioa onartzea, eta Durangoko Udaltzaingoaren Erreglamenduko 21.artikulua moldatzea. Honela geldituko litzateke:*

*Uniformetasunari dagokionez (arropak, identifikazioa eta plakak, ikurrak eta ezaugarriak, bereizgarriak eta ekipoa), indarrean dagoen araudian ezarritakoa aplikatuko da, hau da, Herrizaingo, Justizia eta Administrazio Publikoko sailburuordearen 2012ko irailaren 24ko Aginduan ezarritakoa edo berori ordezkatzen duen araudia. Aipatu Aginduan "Udaltzaingoen uniformetasunaren eta kanpoaldeko zeinu bereizgarrien eskuliburua" argitaratu zen.*

*- Uniformeari eta ekipoari buruzko arau orokorra. Udaltzaingoko kideek arauzko uniformea jantzi beharko dute euren funtzioak betetzerakoan. Bi salbuespen egongo dira: alkateak kontrakoa erabakitzea, betekizunaren arabera; eta zerbitzuburuak hala agintzea, urgentziaren, eskuartze motaren, edo garatu beharreko ekintza edo funtzioen arabera. Agindua eman eta gero, zerbitzuburuak alkateari horren berri emango dio.*

*Ez dira onartuko araudi honetan ezarritakora egokitzen ez den ekipo, jantzi edo osagarririk.*

***Bigarrena**.- Onartzea, behin betiko, Durangoko Udaltzaingoaren Erreglamendua.*

*cometido que se desarrolle, o en su defecto, por el Jefe de Servicio, cuando así lo determine la urgencia, tipo de investigación, operativo o funciones a desarrollar, dando cuenta de la misma posteriormente a Alcaldía.*

*No se permitirá el uso de equipos, prendas y complementos que no se ajusten a lo establecido en el presente Reglamento.*

***DICTAMEN***

*Con el voto favorable de los representantes de EAJ/PNV (2), PSE-EE (PSOE) (1) y PP (1) y la abstención de los representantes de EH Bildu (2), y SQ-2D (1) se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente*

***ACUERDO***

***Primero**.- Aceptar la alegación presentada por ELA y modificar el artículo 21 del Reglamento del Cuerpo de la Policía Local de Durango en el siguiente sentido:*

*En lo referente a la uniformidad (vestuario, identificación y placas, emblemas y divisas, distintivos, equipo y armamento) será de aplicación lo establecido en la normativa vigente, por la Orden de 24 de septiembre de 2012, de la Consejera de Interior, Justicia y Administración Pública, por la que se publica el "Manual de uniformidad y signos distintivos externos de las Policías Locales" o normativa que lo sustituya.*

*- Norma general sobre uniformidad y equipo. Los miembros de la Policía Local en el el ejercicio y cumplimiento de sus funciones deberán vestir el uniforme reglamentario, salvo en los casos a determinar por la Alcaldía en atención al cometido que se desarrolle, o en su defecto, por el Jefe de Servicio, cuando así lo determine la urgencia, tipo de investigación, operativo o funciones a desarrollar, dando cuenta de la misma posteriormente a Alcaldía.*

*No se permitirá el uso de equipos, prendas y complementos que no se ajusten a lo establecido en el presente Reglamento.*

***Segundo**.- Aprobar definitivamente el Reglamento del Cuerpo de la Policía Local de Durango.*

***Hirugarrena***.- *Aipatutako erreglamendua argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean.*

***Laugarrena***.- *Ebazpen honen berri ematea pertsona interesatuari, eta egin ditzakeen errekurtsoen informazioa ematea."*

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Udaleko osoko bilkuran 2018ko uztailaren 17an hasierako onespena eman zitzaion Durangoko Udaltzaingoaren Erregelamenduari.

Jendaurreko epean Javier Sánchez Quecedo jaunak, udaleko funtzionario eta ELA-STVko sekzio sindikalaren kideak, iradokizuna aurkeztu zuen 2018ko abuztuaren 14an, eta abuztuaren 17an alegazio idatzia, iradokizuna zuzentzeko.

Alegazioak honako hau dio: "*Uniformeari eta ekipoari buruzko arau orokorra. Udaltzaingoko kideek arauzko uniformea jantzi beharko dute euren funtzioak betetzerakoan. Bi salbuespen egongo dira: bat, alkateak kontrakoa erabakitzea betekizunaren arabera; eta bi, zerbitzuburuak horrela agintzea, urgentziaren, esku-hartze motaren, edo garatu beharreko ekintza eta funtzioen arabera. Agindua eman eta gero zerbitzuburuak alkateari horren berri emango dio*".

Giza Baliabideetako arduradunaren txostenean oinarrituta, Ogasun, Langile eta Udaltzaingo Batzorde informatiboak aldeko irizpena eman eta honako proposamen hau luzatu dio udalbatzari:

1. Aurkeztutako alegazioa onartzea eta moldatzea Durangoko Udaltzaingoaren erregelamenduko 21. artikulua.

2. Onartzea behin betiko Durangoko Udaltzaingoaren erregelamendua.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Ez badago interbentziorik bozkatu egingo dugu. Idazkari jaunak adierazi duen moduan proposatzen dena da alegazioa onartzea eta Erreglamendua behin betiko onarpena egitea.

BOZKETA egin ostean.

***Tercero***.- *Publicar el referido Reglamento en el Boletín Oficial de Bizkaia y página web municipal.*

***Cuarto***.- *Dar traslado de la presente resolución a la persona interesada con indicación de los recursos que le asistan*."

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: En el Pleno municipal, el 17 de julio del 2018, se dio aprobación inicial al Reglamento de la Policía Municipal de Durango.

En el plazo de someterla a público, el señor Javier Sánchez Quecedo, funcionario municipal y miembro de la sección sindical de ELA-STV, presentó una sugerencia el 14 de agosto del 2018 y el día 17 de agosto, presentó una alegación escrita, para corregir la sugerencia.

He aquí lo que indica la alegación: "*Norma general sobre el uniforme y el equipamiento. Los miembros de la Policía Municipal deberán vestir el uniforme reglamentario al ejercer sus funciones. Habrá dos excepciones: la primera, que la alcaldesa decida lo contrario según la función a ejercer; y la segunda, que el/la jefe de servicio dé esa orden, según la urgencia, tipo de intervención, o la acción o función a desarrollar. Una vez que se dé la orden, el/la jefe de servició informará a la alcaldesa sobre ello*".

En base al informe de la persona responsable de Recursos Humanos, la Comisión informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal ha dictado a favor de esta propuesta y la eleva a la Corporación:

1. Aprobar la alegación presentada y adaptar el artículo 21 del Reglamento de la Policía Municipal de Durango.

2. Aprobar definitivamente el Reglamento de la Policía Municipal de Durango.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Si no hay ninguna intervención, procedemos a la votación. Tal y como ha señalado el señor Secretario, lo que se propone es aprobar la alegación y la aprobación definitiva del Reglamento.

PREVIA votación realizada al efecto.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, onartzen du:

**Lehenengoa**.- ELAk aurkeztutako alegazioa **ONARTZEA**, eta Durangoko Udaltzaingoaren Erreglamenduko 21.artikulua moldatzea. Honela geldituko litzateke:

*Uniformetasunari dagokionez (arropak, identifikazioa eta plakak, ikurrak eta ezaugarriak, bereizgarriak eta ekipoa), indarrean dagoen araudian ezarritakoa aplikatuko da, hau da, Herrizaingo, Justizia eta Administrazio Publikoko sailburuordearen 2012ko irailaren 24ko Aginduan ezarritakoa edo berori ordezkatzen duen araudia. Aipatu Aginduan "Udaltzaingoen uniformetasunaren eta kanpoaldeko zeinu bereizgarrien eskuliburua" argitaratu zen.*

*- Uniformeari eta ekipoari buruzko arau orokorra. Udaltzaingoko kideek arauzko uniformea jantzi beharko dute euren funtzioak betetzerakoan. Bi salbuespen egongo dira: alkateak kontrakoa erabakitzea, betekizunaren arabera; eta zerbitzuburuak hala agintzea, urgentziaren, eskuartze motaren, edo garatu beharreko ekintza edo funtzioen arabera. Agindua eman eta gero, zerbitzuburuak alkateari horren berri emango dio.*

*Ez dira onartuko araudi honetan ezarritakora egokitzen ez den ekipo, jantzi edo osagarririk.*

**Bigarrena**.- Onartzea, **BEHIN BETIKO, Durangoko Udaltzaingoaren Erreglamendua.**

**Hirugarrena**.- Aipatutako erreglamendua argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren Webgunean.

**Laugarrena**.- Ebazpen honen berri ematea pertsona interesatuari, eta egin ditzakeen errekurtsoen informazioa ematea.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda:

**Primero**.- **ESTIMAR** la alegación presentada por ELA y modificar el artículo 21 del Reglamento del Cuerpo de la Policía Local de Durango en el siguiente sentido:

*En lo referente a la uniformidad (vestuario, identificación y placas, emblemas y divisas, distintivos, equipo y armamento) será de aplicación lo establecido en la normativa vigente, por la Orden de 24 de septiembre de 2012, de la Consejera de Interior, Justicia y Administración Pública, por la que se publica el "Manual de uniformidad y signos distintivos externos de las Policías Locales" o normativa que lo sustituya.*

*- Norma general sobre uniformidad y equipo. Los miembros de la Policía Local en el el ejercicio y cumplimiento de sus funciones deberán vestir el uniforme reglamentario, salvo en los casos a determinar por la Alcaldía en atención al cometido que se desarrolle, o en su defecto, por el Jefe de Servicio, cuando así lo determine la urgencia, tipo de investigación, operativo o funciones a desarrollar, dando cuenta de la misma posteriormente a Alcaldía.*

*No se permitirá el uso de equipos, prendas y complementos que no se ajusten a lo establecido en el presente Reglamento.*

**Segundo**.- Aprobar **DEFINITIVAMENTE** el **Reglamento del Cuerpo de la Policía Local de Durango**.

**Tercero**.- Publicar el referido Reglamento en el Boletín Oficial de Bizkaia y página Web municipal.

**Cuarto**.- Dar traslado de la presente resolución a la persona interesada con indicación de los recursos que le asistan.

**BOST.- BIDEZKOA BALITZ, ASTARLOA KULTURGINTZA ERAKUNDE AUTONOMOEN ESTATUTUAK ALDATZEKO PROPOSAMENA. (ASTARLOA KULTURGINTZAKO GOBERNU BATZORDEAREN 2018KO URRIAREN 24KO IRIZPENA DUENA).**

IRAKURRI OSTEAN Astarloa Kulturgintzako Erakunde Autonomoen Gobernu Batzordearen irizpena duena 2018ko urriaren 24koa, eta honako hau dioena:

"*Astarloa Kulturgintzako Gobernu Batzordeak, 2018ko urriaren 24an, gaia eztabaidatu ondoren, bozkatu egin du ea Astarloa Kulturgintzaren estatutuetako bi artikuluren aldaketa onartu behar ote den, orain arte LESA merkataritza-etxeak eman izan dituen zerbitzuak erakundearen barruan gara daitezen.*

*Astarloa Kulturgintzaren estatutuek honako hau diote, hitzez hitz, **3. artikuluan**:*

*3. artikulua. Astarloa Kulturgintza zerbitzu publikoaren bokazioa duen erakundea da, eta hiru eremutan egiten du lan:*

- *Museoa: Durangoko herritarren eta ingurukoen zerbitzura dago eta bere helburua da gizakiaren testigantza materialak eskuratzea, zaintzea, ikertzea, ezagutzera ematea eta erakustea, nahi duenak aztertu, ikasi eta disfrutatu dezan. Honetarako, komunikazio-era ezberdinak erabiltzen ditu eta material egokiak ere bai. Halaber, hasi berriak zein ospetsuak diren bertako eta kanpoko artisten lanak jartzen ditu herritarren esku erakusketen bidez, batzuk aldi baterakoak eta beste batzuk egonkorrak. Honetarako guztietarako, Arte eta Historia arloetan adituak direnen aholkuak jasotzen ditu.*

- *San Agustín Kultur Gunean arte eszeniko profesionalak ematen dira ezagutzera (antzerkia, musika eta dantza). Programazio iraunkor baten bidez interes kulturaleko irizpideak erabiltzen dira herritarrei egiten zaien kultur eskaintza osatzeko. Era berean, erakusleihoa da herriko elkar-*

**CINCO.- PROPUESTA DE APROBACIÓN INICIAL, SI PROCEDE, DE LA MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS DEL ORGANISMO AUTÓNOMO ASTARLOA KULTURGINTZA. (DICTAMINADO POR SU JUNTA DE GOBIERNO DE 24 DE OCTUBRE DE 2018).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Junta de Gobierno del Organismo Autónomo "Astarloa Kulturgintza", de 24 de Octubre de 2018, del tenor literal siguiente:

"*En Junta de Gobierno de Astarloa Kulturgintza, de fecha 24 de octubre de 2018, tras deliberación, se eleva a votación la necesidad de aprobar la Modificación de dos artículos de los estatutos de Astarloa Kulturgintza para que la prosecución de los servicios hasta ahora prestados por al mercantil LESA se desarrollen en el seno dicho Organismo*

***Artículo 3** de los estatutos de Astarloa Kulturgintza literalmente establece:*

*Artículo 3. Astarloa Kulturgintza nace con vocación de servicio público y tiene como fin diferenciado en sus tres ámbitos:*

- *Museo: Se dedica a adquirir, conservar, investigar, comunicar y exhibir para fines de estudio, de educación y de deleite, testimonios materiales del ser humano al servicio del pueblo de Durango y su entorno, mediante diferentes formas de comunicación y adecuados medios materiales. Así mismo, pone al alcance del ciudadano las obras tanto de artistas locales como foráneos, noveles como consagrados, mediante exposiciones temporales y estables, contando para ello con asesoramiento de personas entendidas en Historia y Arte.*

- *San Agustín Kultur Gunea es un espacio difusor de las Artes Escénicas profesionales (teatro, música y danza) de mediano formato que ofrece una programación estable con criterios públicos de interés cultural, completando así la oferta que desde el municipio se ofrece a la*

*teen lanak plazaratzeko eta erabilgarri dago hala eskatzen duten erakunde guztientzat.*

- *Durangoko Udal Liburutegia, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalean sartuta dago eta antzeko beste erakunde batzuekin ere aritzen da elkarlanean. Bere helburu nagusiak dira: Informazio eta kultur ekoizpenen ezagupena bermatzea, etengabeko informazioaren alde eta gizarteratzearen alde egitea, eta gune bat eskaintzea kultur ekintzetan parte hartu ahal izateko eta irakurketa sustatzeko.*

***Laugarren puntua gehitu:***

- *Landakogunea: Honako hauek dira helburu nagusiak: Landakoko erabilera anitzeko eraikina eta gainerako instalazio erantsiak modu integralean kudeatu eta ustiatzea. Azokak sustatzea eta kudeatzea, lanekoak ez diren jarduera ekonomikoak garatzen laguntzea, bai eta bere jabetza laga eta errentatzea ere. Era berean, Durangoko elkarte-sareari lagatzen dio eta herritarren esku jartzen du bere jabetza".*

*Astarloa Kulturgintzaren estatutuek honako hau diote, hitzez hitz, **25. artikuluan**:*

*1. Osagai hauek izango ditu Erakunde Autonomoaren ondareak: batetik, Udalak Organismoari bere helburuak betetzeko atxikitzen dizkion ondasunak, eta, bestetik Organismoak berak bere funtsekin ordainduta eskuratutakoak.*

*2. Hauek dira Erakunde Autonomoari atxikitako ondasun higiezinak:*

- *Arte eta Historia Museoa, San Agustinalde 16an dagoena.*
- *Kurutze Santuaren ermita.*
- *San Agustin Kultur Gunea, San Agustinalde 12an dagoena.*
- *Udal Liburutegia.*

*ciudadanía. A su vez, sirve de plataforma de exhibición para el tejido asociativo durangués y como auditorio disponible para todas aquellas entidades que lo requieran.*

- *Durangoko Udal Liburutegia, integrada en el Sistema Nacional de Bibliotecas de Euskadi, y que colabora además con otros organismos afines, tiene como objetivos principales: Garantizar el acceso a la información y a los productos culturales, favorecer la información continua y la integración social, ofrecer un espacio para la participación en actividades culturales y de promoción de la lectura.*

***Añadir un cuarto punto:***

- *Landakogunea: Tiene como objetivos principales: gestión integral y explotación del edificio multiusos de Landako y demás dependencias anexas. La promoción de ferias y mercados, gestión de los mismos, apoyo para el desarrollo de actividades económicas no laborales, la cesión y el arrendamiento de su propiedad. Así como la cesión al tejido asociativo de Durango y puesta a disposición de la ciudadanía"*

***Artículo 25** de los estatutos de Astarloa Kulturgintza literalmente establece:*

*1. El patrimonio del Organismo Autónomo estará integrado por los bienes que el Ayuntamiento le adscriba para el cumplimiento de sus fines y los que adquiera con cargo a sus propios fondos.*

*2. Son bienes inmuebles adscritos al Organismo Autónomo:*

- *El Museo de Arte e Historia, sito en San Agustinalde 16.*
- *La Ermita de la Veracruz.*
- *El espacio cultural San Agustín Kultur Gunea sito en San Agustinalde 12.*
- *La Biblioteca Municipal.*

***Puntu berria gehitu:***

- *Landakogunea eta instalazio erantsiak*

*Bozkatu egin da, eta honako hau izan da emaitza:*

- *Aldeko botoak: EAJ-PNV (2) eta PSE-EE (PSOE) (1).*
- *Abstentzioak: EH Bildu (2); SQ-2D (1) eta PP (1).*

*Gobernu Batzordeak Udalbatzako Osoko Bilkurara igorri du Astarloa Kulturgintzaren estatutuen 3. eta 25. artikuluak aldatzeko proposamena."*

***Añadir un nuevo punto:***

- *Landakogunea y dependencias anexas*

*Se procede a la votación, con el siguiente resultado:*

- *Votos a favor: EAJ-PNV (2) y PSE-EE (PSOE) (1).*
- *Abstenciones: EH Bildu (2); SQ-2D (1) y PP (1).*

*La Junta de Gobierno, eleva al Pleno de la Corporación propuesta de Modificación de los artículos 3 y 25 de los Estatutos de Astarloa Kulturgintza."*

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Udalbatzak, 2018ko urtarrilaren 30ean, behin-behineko onespena eman zion Landako Gunearen kudeaketaren aldaketari buruzko memoriari. Memoria hau jendaurrean egon zen 30 egunez eta inolako erreklamaziorik jaso ez zuelarik behin betikotzat onartu egin zen delako memoria hori.

Horren ondorioz, eta memoria horren arabera, LESAk zuen objektu soziala Astarloa Kulturgintza erakunde autonomoak bereganatzeko espedientea hasi da. Objektu hori bereganatzeko lehenengo pausua Astarloak berak dituen estatutuen aldaketa da, bere objektua aldatu behar baita. Horren arabera Astarloa Kulturgintzako Juntak irizpena onartu zuen horixe eskatuz Udalbatza honi bere estatutuen aldaketa, hain zuzen ere, objektuari dagokionez.

Horretarako aldatu egin beharko litzateke 3. artikulua, Astarloa Kulturgitzako helburuak aldatzeko eta atxikitutako ondasun higiezinak bere kargu jartzeko.

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: La Corporación Municipal, el 30 de enero del 2018, aprobó provisionalmente la memoria sobre el cambio en la gestión de Landako Gunea. La memoria se sometió a exposición pública durante 30 días y al no presentarse ninguna reclamación, la memoria se aprobó definitivamente.

En consecuencia, y según la mencionada memoria, se ha iniciado el expediente para que objeto social que correspondía a LESA pase a manos del organismo autónomo Astarloa Kulturgintza. El primer paso para que se haga con el mencionado objeto es el cambio de los estatutos de Astarloa, siendo necesario el cambio de objeto. Así, la Junta de Astarloa Kulturgintza aprobó un dictamen solicitando a esta Corporación la modificación de sus estatutos, en lo que se refiere al objeto.

Para ello, habría que modificar el artículo 3, para modificar los objetivos de Astarloa Kulturgintza y para que los bienes inmuebles correspondientes queden a su cargo.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Ez dugu idazkariak aurkeztutako argudioaren aurka ezer esatekorik.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: No tenemos ninguna posición en contra del argumento presentado por el Secretario.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Idazkariak azaldu duen moduan, estatutuetan aipatutako aldaketa eginda, lehen LESA sozietate publikoa zena, orain, Astarloa Kulturgintza erakunde autonomoaren parte bihurtu da, sorreran zituen helburuak galdu gabe; hau da, udalerrira jarduera ekonomikoa ekartzen duten azokak sustatzea, besteak beste, Berdeago, Durangoko Azoka eta pasa den asteburuan izan ditugun kontzertuak.

Beste helburuetako bat eraikina udalerriko zenbait elkarteri lagatzea da, hala urte osoan antolatzen diren jarduerei babesa eman nahi baitiegu.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Duela hiru urte sartu zen LESA likidazioan kudeaketa txarra medio, eta ordutik, beti defendatu dugu LESAren kudeaketa Udalak egin behar lukeela zuzenean. Hasieran, proposamena zen, berriro enpresa publiko baten parte izatea; kasu honetan, Durango Eraikitzen izango litzateke, etxebizitza pribatuaren kudeaketan aritzen dena. Esan genuen bere garaian ez zitzaigula hori egokia iruditzen eta kudeaketa-eredu honen aldeko apustua egin genuen.

LESAn, 2015etik, ez da bete hilero bilerak egiteko egutegia eta hiru urteetan egin beharreko 34 bileretatik 8 bakarrik egin ditugu eta hala, gehiegi atzeratu da aldaketa hau. Orain uste dugu presa handiegiarekin dakarkiguzuela onespena hau eta pozten gara gure proposamena, helburu nagusietako bat pabilioia Durangoko herritarrei eta elkarteei irekitzearena, bertan txertatu duzuelako, baina zapore gazi-gozoa gelditu zaigu; izan ere, irizpena eman zeneko Batzordean ez zen eztabaidarako aukerarik izan, ez eta aldaketak eta aukerak aztertzeko aukerarik ere eta ez genuen gure galderen erantzunik jaso.

Eredu hau eta aldaketa hau beti defendatu dugun arren, ez gatoz bat moduekin; beraz, ezin dugu aldeko boza eman.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Tal y como ha explicado el Secretario, con esta modificación de Estatutos lo que era la Sociedad Pública LESA pasa a formar parte del organismo autónomo Astarloa Kulturgintza, y lo hace sin perder los objetivos para los que se creó: la promoción de ferias y mercados que traen actividad económica al municipio; entre ellas las ferias de Berdeago, Durangoko Azoka, o los conciertos que hemos tenido el fin de semana pasado.

Otro de sus objetivos es la cesión de este edificio a diferentes asociaciones que tenemos en el municipio ya que con ello pretendemos apoyar las diferentes actividades que se organizan a lo largo del año.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Hace tres años que LESA entró en liquidación debido a una mala gestión, y desde entonces hemos defendido todas y cada una de las veces que la gestión de LESA debería a pasar a ser directa desde el Ayuntamiento. En un principio se nos traía una propuesta de que pasara a ser, de nuevo, parte de una empresa pública; en este caso sería Durango Eraikitzen que se dedica a la gestión de la vivienda privada. Ya lo dijimos en su momento que no creíamos que fuera correcto y apostamos por este modelo de gestión.

En LESA, desde 2015, no se ha cumplido con el calendario de reuniones mensuales y apenas hemos tenido 8 reuniones de las 34 previstas en estos tres años, lo que ha retrasado demasiado este cambio. Ahora creemos que nos están trayendo con demasiadas prisas esta aprobación en la que, nos alegramos de que se haya incluido nuestra propuesta de que uno de sus objetivos principales sea que el pabellón se abra a las asociaciones y a la ciudadanía de Durango, pero nos ha quedado el sabor agridulce de que en la comisión en la que se dictaminaba no se dio la posibilidad de debate, de cambios, de posibilidades, ni siquiera se dieron respuestas a preguntas que teníamos.

Pese a que hemos defendido siempre este modelo y este cambio, no podemos compartir estas formas; por lo cual, no podemos votar a favor.

* **Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)**: Hauxe da azken urteotan egin duzuen kudeaketaren adibiderik onena. Legealdi honetakoa eta aurrekokoa.

Arazoak edo zailtasunak etortzen zaizkizuenean, haiei aurre egin eta kudeatu beharrean, beste alde batera begiratzen duzue, kontua zuei ez balegokizue bezala. Ea arazoa, kasualitatez, bere kabuz konpontzen den, ez den zalaparta handirik sortzen edo ea jendeak ahazten duen eta horrela, ea jarraitzen duzuen besteren kontura edo errentetatik bizitzen.

LESA enpresa publikoak kudeatzen zuen erabilera anitzeko pabilioia, zuen kudeaketa-eredua zegoen han, ate birakariena eta langileak nahierara aukeratzearena. Zuen hain ondo kontrolatzen duzuen eta hain gustuko duzuen eredua. Eta hala ere, araudian aldaketa bat izan eta zuei hari buruzko informazioa foru-aldundiko lagunek garaiz eman zizueten arren, ez zenuten ezer egin. Eta beste alde batera begiratu eta denbora batean ezer egin gabe egon ondoren, legeak hala behartuta, enpresa likidatu beharrean zaudete.

